

Eskaera bideratzeko epea eta beharrezkoak diren agiriak

Enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon behar duzu, eta enplegua utzarazten zaizunetik (edo hartu beharreko oporraldia amaitzen denetik, edo lan-harremana eteten edo lanaldi-murrizketa gertatzen denetik, edo atzerritik itzultzen zarenetik, edo espetxetik ateratzen zarenetik) **HAMABOST EGUN BALIODUNEKO EPEAN** egin behar duzu eskaera, agiri hauek aurkeztuta:

IDENTIFIKATZEKO (EZ DUZU KOPIARIK ZERTAN AURKEZTU BEHAR)

Espainiarrak: Nortasun Agiri Nazionala (NAN) edo pasaportea.

Espainianbizi diren atzerritarrik:

Europako Batasuneko nazionalak: Europar Batasuneko biztanle gisa erregistratuta egotearen ziurtagiria, non AIZ ageri den, eta jatorrizko herrialdeko nortasun agiri (edo pasaporte) zenbakia.

Europar Batasuneko nazionalak ez direnak: Atzerritarren Identifikazio Txartela (AIT) eta pasaportea.

ESKAERA IZAPIDETZEKO (EZ DUZU KOPIARIK AURKEZTU BEHAR)

- **TITULARRA** ZAREN ETA PRESTAZIOA JASO NAHI DUZUN KONTU-ZENBAKIA AGERTZEN DEN EDOZEIN BANKU-AGIRI.
- **ARDURAPEKO SEME-ALABARIK** IZANEZ GERO, FAMILIA-LIBURUA EDO, ATZERRITARRA IZANEZ GERO, HORREN DOKUMENTU BALIOKIDEA, LEGEZTATUTA ETA ITZULITA. **HARRERAN HARTUTAKO SEME-ALABAK** IZANEZ GERO, EBAZPEN JUDIZIALA EDO ADMINISTRATIBOA, HARRERAREN ONDORIOETARAKO DATAREKIN. **26 URTEK GORAKO SEME-ALABA** DESGAITUAK BADIRA, **IMSERSO**K EDO DAGOKION **AUTONOMIA ERKIDEGOKO** ORGANOA IGORRITAKO DESGAITASUN-MAILAREN ZIURTAGIRIA; EDO TA **GSIN**REN, **OGASUN MINISTERIOAREN ZEIN DEFENSA MINISTERIOAREN** EBAZPENA, PENTSIODUN IZAERA ONARTZEN DUENA EZINTASUN IRAUNKORRAGATIK, ABSOLUTUAGATIK EDO BALIAEZINTASUN HANDIAGATIK, EDO ERRETIRO IZAERA, ZERBITZUGINTZARAKO BEHIN-BETIKO EZINTASUNAGATIK EDO EZEREZTASUNAGATIK.
- **SENTENTZIA** EDO TA HITZARMEN ARAU-EMAILEA, BANANTZE EDO DIBORTZIOAREN KASUAN.
- **SEME-ALABAK ATZERRIAN** IZANEZ GERO, HAIEN IDENTIFIKAZIOA ETA LAN-EGOERAREN EGIAZTAGIRIA (ZIURTAGIRI ADMINISTRATIBO LEGEZTATUAREN EDO, **EUROPAKO ESPARRU EKONOMIKOTIK KANPO** BADAUDE, **U006/E302** INPRIMAKIEN BITARTEZ).
- **LEGEZKO LANGABEZIA-EGOERAREN ZIURTAGIRIA, ARRAZOI HAUENGATIK:**
 - * **Lan-harremana amaitzea**
 - Lan egindako azken 180 egunen ziurtagiria, Enpresak igorria, baldin eta enpresak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikora bidali ez badu Certific@2bitartez.
 - Administrazio-adiskidetzearen edo adiskidetze-judizilaren akta, edo ebazpen judiziala.
 - Epaileak kalte-ordainaren inguruan hartutako erabakia, irazpenaren kontra erreklamatu badu.
 - * **Itzulitako emigratzailea**
 - Gobernuko Ordezkaritzek edo Ordezkariordezek egindako ziurtagiria; bertan, itzultzeko data eta atzerriko herrialdean lan egin den denbora islatu beharko da.
 - U1 edo E-301 inprimakia, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko herrialde kide batetik edo Suitzatik itzuliz gero, edo AUS/E1 dokumentua, Australiatik itzuliz gero.
 - * **Espetxetik ateratakoa**
 - Espetxeko Zuzendaritzaren ziurtagiria, espetxeratze-data eta kaleratze-data eta horren arrazoia adieraziz.
 - Enpresa-ziurtagiria, langabezia-kontingentziarengatik kotizatu zuen barneratze-aldian lanik egin bada.

Iraupena

Langabezia-prestazioaren iraupena honen arabera zehaztuko da: langabeziako legezko egoeraren aurreko azken sei urteetan, kotizatutako beharra amaitu zen unean edota, hala badagokio, aurreko langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea sortu zenean, kontingentzia hori jasotzen zuen erregimen batean kotizatutako lanbide-aldien arabera. Hala, eskala honi jarraiki zehaztuko da:

KOTIZATUTAKO ALDIA (egunetan)	PRESTAZIOAREN IRAUPENA (egunetan)	KOTIZATUTAKO ALDIA (egunetan)	PRESTAZIOAREN IRAUPENA (egunetan)
360 eta 539 egun bitartean	120	1.440 eta 1.619 egun bitartean	480
540 eta 719 egun bitartean	180	1.620 eta 1.799 egun bitartean	540
720 eta 899 egun bitartean	240	1.800 eta 1.979 egun bitartean	600
900 eta 1079 egun bitartean	300	1.980 eta 2.159 egun bitartean	660
1080 eta 1259 egun bitartean	360	2.160tik gora	720
1.260 eta 1.439 egun bitartean	420		

Itzulitako emigratzaileen eta espetxetik askatutakoen langabezia-prestazioaren iraupena, Espainitik irten aurreko edo presondegian sartu aurreko sei urteetan kotizatutako okupazio-aldien arabera finkatuko da, langileek atzerrian edo presondegian kotizazioak badituzte izan ezik.

Prestazioaren zenbatekoa

- LANGILEAK DUEN OINARRI ARAUTZAILEAREN ARABERAKOA IZANGO DA.
- EGUNEROKO OINARRI ARAUTZAILEA DA LANGABEZIA-KONTINGENTZIARENGATIK GIZARTE SEGURANTZARAKO LANALDI OSOAN EDO PARTZIALEAN KOTIZATUTAKO AZKEN 180 EGUNETAKO KOTIZAZIO-OINARRIEN BATURA (LANEKO ISTRIPU ETA GAIXOTASUNEN OINARRIA) ZATI 180.
- PRESTAZIOAREN LEHEN 180 EGUNETAN OINARRI ARAUTZAILEAREN % 70 KOB RATUKO DA, ETA 181. EGUNETIK AURRERA, OINARRI HORREN % 50.
- PRESTAZIOAREN ZENBATEKOA EZIN DA IZAN, INOLA ERE, ONDORIO ASKOTARAKO ERRENTA ADIERAZLE PUBLIKOAREN (IPREM) % 80 BAINO TXIKIAGOA, 1/6 BATEAN HANDITUTA, LANGILEAK SEME-ALABARIK EZ BADU ARDURAPEAN, ETA % 107 BAINO TXIKIAGOA, GUTXIENEZ, UME BAT BADU ARDURAPEAN.
- PRESTAZIOA, GEHIENEZ, IPREMAREN %175, %200 EDO %225 IZANGO DA, SEIREN BAT HANDITUTA, SEME-ALABA KOPURUAREN ARABERA (SEME-ALABARIK EZ, SEME-ALABA BAT, EDO BI SEME-ALABA EDO GEHIAGO, HURRENEZ HURREN).
- LANALDI PARTZIALEKO LANA GALTZEAGATIKO LANGABEZIAREN KASUAN, GUTXIENEO EDO GEHIENEO ZENBATEKOA KOTIZATUTAKO AZKEN 180 EGUNETAN LAN EGINDAKO ORDU KOPURUAREN ARABERAKOA IZANGO DA.
- PRESTAZIOAK, HALA BADAGOKIO, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA PFEZREN KENKETAK IZANGO DITU.
- ERAKUNDE KUDEATZAILEAK (ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA EDO IGI) KONTINGENTZIA ARRUNTENGATIK SARTUKO DIZKIO KOTIZAZIOAK GIZARTE SEGURANTZARI, ETA LANALDIA ETEN EDO MURRIZTEN BADA, LANGILEAK KONTINGENTZIA GUZTIENGATIK EGINDAKO EKARPENAK SARTUKO DITU.

BI ERATARA AURKEZ DEZAKEZU ESKAERA: [HTTPS://SEDE.SEPE.GOB.ES](https://sepe.sepe.gob.es) ORRIAREN BIDEZ, EDO PRESTAZIO-BULEGOAN (SEPEREN EGOITZA ELEKTRONIKOAN HITZORDUA ESKATUTA).

Informazio gehiago lor dezakezu www.sepe.es web orrialdean, eta herritarren arretarako [telefonoetan](tel:902909999)